

## Galdera

'*Información académica*': nola eman euskaraz? 'Akademi informazioa', 'akademia-informazioa', 'informazio akademikoa'?

## Erantzuna

'**Informazio akademikoa**' da formarik ohikoena.

Zenbait adibide:

[Familien gunea - Hezkuntza saila \(euskadi.eus\)](#): «Tresna erabilgarri honi esker, familiek eskura izango dute, besteak beste, Hezkuntza Sailak duen informazio akademikoa edo ikastetxeen antolaketarekin zerikusia duen beste hainbat gai jakingarri».

[ARAUDI AKADEMIKOAK - Bilboko Hezkuntza Fakultatea - UPV/EHU](#): «Informazio Akademikoa»  
[Informazio Akademikoa \(hezkuntza.net\)](#): «Informazio Akademikoa»

**1/** Amaieran *-a* itsatsia duten maileguetan (justizia, akademia...), elkarteko lehen osagaiak *-ia* badu, *a*-rekin zein *a* gabe idatz daitezke. Hiru aukera hauek *arauzkoak* dira: 'akademia-informazioa', 'akademia informazioa', 'akademi informazioa' (\*akademi-informazioa).

Baina kontuz! **25. araua** 1995ekoa da, eta, geroztik, biziki urritu da *-a* hori kenduta ('akademi informazioa') emateko erabilera; bazter-bazterreko usadio bihurtu da. Euskaltzaindiaren Hiztegian, kasurako, ez dago horrelakorik, ez sarrera edo azpisarreretan, ez definizioetan, ezta adibideetan ere.

Orobat, 'akademia-informazioa' eta 'akademia informazioa' formak ezohikoak dira oso.

**2/** Bestalde, zein den testuingurua, '**ikasketa-**' edo '**ikasketen**' formen bidez eman daiteke. [Euskalterm](#) terminologia-banku publikoan hainbat adibide ditugu:

Actividades Extraacadémicas	<b>ikasgelaz</b> Kanpoko Ekintzak
certificación académica	<b>ikasketen</b> ziurtagiri
extensión académica	<b>ikasketa-</b> hedapen
ordenación académica	<b>ikasketen</b> antolamendu
Sección de Ordenación Académica	<b>Ikasketak</b> Antolatzeko Atala
titulación académica titulu akademiko	<b>ikasketa-</b> tituluak
vicerrector de ordenación académica	<b>ikasketen</b> antolamendurako errektoreorde

...

Hartara, '**ikasketei buruzko informazioa**' edo '**ikasketen gaineko informazioa**' terminoak ere erabil litezke zenbait testuingurutan; izan ere, esamolde hori '**notak**' edo '**kalifikazioak**' terminoen kidekoa besterik ez da kasu batzuetan.

**3/** Gehiago jakiteko:

Euskara Batuaren Eskuliburua

[hitz elkartuen osaera eta idazkera - Euskara Batuaren Eskuliburua \(euskaltzaindia.eus\)](#)

Euskalterm terminologia-banku publikoa

[Euskalterm - Euskararen corpusa](#)

Oharra: Izartxoak (\*) adierazten du ez dela zuzena.